

## Aiherra

### Kantu afaria ortzira-lean

Herritar lagun multxo batek proposaturik, Gozategia ostatuan kantu afaria ostiral ardatsean, abenduaren 17an, egingen da. Kantuz aritzea laketa zaioten guzientzat irekia da, izan daiten herritar ala kanpoko. Jaki edo plater konbinatua 13,50€ arnoa gabe. Tokiak gelditzen dira oraino, haatik hobe erreserbatzea ostatura deituz: 05 59 55 02 13. Ongi etorri deneri!

### Bi ekipoek galdu

Joan den igandean, esku huska 2 ekipoek parte hartu zuten, Iparaldeko pilota batzordeak antolatu txapelketaren finaleran. Zorigaitzez biek galdu dute: **gazteek:** Xalbat Duhalde - Mattin Echevertz Azkaineko Iban Larzabal - Oihan Gonzalez aurka 26/40, **artekoek** Xabi Harguindeguy - Mattin Durruty Senpereko Baptiste Lopez - Mathieu Lazcano aurka 13/40. Bi partidantz ez da deus erraitekorik, hoberekek baitute irabazi, baina ba-

dakigu erakutsi dutena baino hobeki egin dezaketela. Orain Frantziako txapelketaren kontu segitzen baitute, partida eder batzuen egiteko parada ukatzen dute oraino. Segi aitzina! Senpereko finalen eguna bururatu zen, lehen mailako final xoragarri batekin.



Gazteak: Mattin Echevertz-Xalbat Duhalde eta Oihan Gonzalez-Iban Larzabal azkaindar txapeldunak



Artekoak: Xabi Harguindeguy-Mattin Durruty eta Baptiste Lopez-Mathieu Lazcano Senpertar txapeldunak